ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

2026IKIE0005 5/2026

ELGOIBARKO UDALERRIKO URTEKO ZINE PROGRAMAZIORAKO FILMAK HORNITZEKO ETA GARRAIATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

PLIEGO DE CLÁUSULAS TÉCNICAS PARA EL SUMINISTRO Y TRANSPORTE DE PELÍCULAS PARA LA PROGRAMACIÓN CINEMATOGRÁFICA ANUAL DEL MUNICIPIO DE ELGOIBAR

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honen bitartez egingo den kontratuaren xedea honakoa izango da: Elgoibarren, Herriko Antzokiko (haurrentzako zinea, helduentzako zinea eta unean uneko programazioa), nahiz udako aire libreko zinemaldiko urteko programazio zinematografikorako filmak hornitzea eta garraiatzea.

1.- OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que en base al presente pliego se realice, tendrá por objeto el suministro y el transporte de las películas para la programación cinematográfica anual en Elgoibar tanto en el Herriko Antzokia (cine infantil, cine para adultos y programación puntual) como para el cine al aire libre de verano.

2.- EGIN BEHARREKO LANAK

Esleipendun gertatuko den enpresak Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak ezartzen duen programazio zinematografikoaren ezaugarriak errespetatu beharko ditu, bereziki, ondoren zehaztuko direnak:

Emanaldiak Elgoibarko Herriko Antzokian izango dira; izan ere, bertan dago filmak eskaintzeko aretoa. "Udako Zinearen" programazioa, aire librean izango dena, berriz, Elgoibarko Kalegoen plazan eskainiko da, baldintza klimatologikoek, beste leku batzuetara eramatera behartzen ez badute, behinik behin. Kasu horietan, antolakuntzari behar adinako aurrerapenarekin emango zaio horren berri.

Herriko Antzokian eskaintzen den zine zerbitzua bi denboralditan eskaintzen da: alde batetik, urtarriletik maiatzera, biak barne; eta bestetik, irailetik abendura, biak barne.

Oro har, eta programazio espezifikoen ondorioz egin behar diren kontratazioen kasuan izan ezik, programazioaren eskema honakoa izango da:

• "Zine komertzialeko" film bat asteburuetan. Film hau ostiraletik astelehenera eskainiko da honako ordutegi honetan:

Ostirala	19:00

2.- TRABAJOS A REALIZAR

La empresa que resulte adjudicataria, deberá respetar las características de la programación de cine establecida por el Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Elgoibar, que básicamente son las siguientes:

Las proyecciones tendrán lugar en el Herriko Antzokia de Elgoibar, donde se ubica la sala de exhibición cinematográfica, salvo la programación de "Cine de Verano" que se realizará al aire libre, en Kalegoen plaza de Elgoibar, salvo que las condiciones climatológicas obliguen a su traslado a otros espacios públicos, en cuyo caso la organización será informada con la suficiente antelación.

El servicio de cine ofrecido en el Herriko Antzokia de Elgoibar se ofrece en dos temporadas, que se corresponden con los meses comprendidos entre enero y mayo, ambos incluidos, y septiembre y diciembre, ambos incluidos.

De manera general, y salvo contrataciones puntuales por necesidades de programas específicos, el esquema de programación es el siguiente:

• Una película de "Cine Comercial" los fines de semana. Esta película se proyectará de viernes a lunes en estos horarios:

Viernes	19:00

Larunbata	19:00 22:15
Igandea	19:00
Astelehena	21:00
Jaiegunak	19:00

Sábado	19:00 22:15
Domingo	19:00
Lunes	21:00
Festivos	19:00

• "Haurrentzako Zineari" dagokion film bat, igandeetan, 16:30eko saioan.

• "Aire Libreko Zinemaldiko" 4 film uztailean, 22:30ean.

• Una película dirigida a la sesión de "Cine-Infantil" los domingos a las 16:30 horas.

• 4 películas de "Cine al Aire Libre" en el mes de julio a las 22:30 horas.

Maiztasun hau programazio ildo orokor batzuei dagokie, eta aldaketak izan ditzake, antzerkiaren, musikaren, dantzaren arloko kultur programazioaren eta jaietako edo egun berezietako programazioaren ondorioz.

Esta periodicidad hace referencia a las líneas generales de programación y podrá sufrir modificaciones en función de la programación cultural de teatro, música, danza y de fiestas o fechas concretas.

Banatu behar diren pelikula zinematografikoen programazioa Elgoibarko Kultura Sailak prestatuko du. Kultura Sailak, Kultura Teknikariaren bitartez, bideratuko ditu enpresa esleipendunarekiko komunikazio lanak.

La programación de las películas cinematográficas objeto de distribución será realizada por el Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Elgoibar, quien a través de la Técnica de Cultura la comunicará y coordinará con la empresa adjudicataria.

Programazio zinematografikoa prestatzeko, Kultura Sailak honako irizpide hauek izango ditu kontuan; eta enpresa esleipendunak horiek bete beharko ditu:

Para la realización de la programación cinematográfica el Departamento de Cultura tiene en cuenta los siguientes criterios, que la empresa adjudicataria se compromete a cumplir:

• Mota guztietako generoak sartzea, eta zinema independentearen, europarraren edota iberoamerikarraren emanaldiak eskaintzea.

• Incluir todo tipo de géneros y realizar proyecciones de películas de cine independiente y/o comunitario e iberoamericanas.

• Gaurkotasunezko filmak eta berriki estreinatutakoak.

• Películas de actualidad y estrenos recientes.

•Euskaraz egindako filmak edo euskarara bikoiztutakoak, hain zuzen, zine komertzialeko zirkuitura iristen direnak.

• Películas realizadas o dobladas al euskera que lleguen al circuito comercial de exhibición de cine.

Herriko Antzokiko zinearen sarraren prezioak Udal Ordenantzan zehazten direnak izango dira, eta jarduera honen ondorioz biltzen den diru guztia Elgoibarko Udalarentzat izango da.

Los precios de las entradas para el cine del Herriko Antzokia de Elgoibar serán los que vienen determinados en las Ordenanzas Municipales y la recaudación obtenida por esta actividad será integra para el Ayuntamiento de Elgoibar.

3.- ZERBITZUEN EZAUGARRIAK

Enpresa esleipendunak zerbitzu nagusiaren ardura hartzeko, hau da, filmak Elgoibarko Herriko Antzokiari ondoren zehaztuko diren baldintzetan eskaintzeko beharrezkoak diren

3.- CARACTERÍSTICAS DE LOS SERVICIOS

Para la ejecución de este contrato la empresa adjudicataria deberá disponer de los recursos técnicos y humanos necesarios para hacerse cargo del servicio principal, consistente

baliabide teknikoak eta giza baliabideak izan beharko ditu kontratu hau exekutatu ahal izateko.

.- Enpresa esleipendunak formatu digitalean izan beharko ditu filmen kopiak. Halaber, kopiak legeztatuta izan beharko ditu, emanaldi eskubideei (agiri hau ikuskapen ministerial guztien esku izan beharko da emanaldi guztietan), jabetza intelektualari, industrialari, patenteei, markei eta abarrei dagokienez.

.- Salbuespen gisa, arrazoi teknikoak tarteko, emanaldia formatu digitalean egitea ezinezkoa baldin bada, DVD edo Blue-ray formatuetan egin ahal izango da, baita gaur egungo edo etorkizuneko beste edozein formatutan ere, baldin eta aretoko erakusketa elementuekin bat badator.

.- Enpresa esleipendunak kontratu bidez hitzemango du filmak ahalik eta eperik laburrenean hornituko dituela, eta inola ere ez duela gaindituko filma estreinatu eta hilabeteko epea.

.-Programazioa, gutxienez, emititu baino 21 egun lehenago egin beharko da.

.- Enpresa esleipendunak beharrezkoa den kalifikazioa aurkeztuko du, film bakoitzaren adinaren araberakoa, baita filmaren iraupena ere.

.- Elgoibarko Herriko Antzokian utzi eta jasoko dira astelehenetik ostiralera, honako ordutegi honetan: 10:30etik 13:30era eta 16:30etik 20:30era. Enpresak Elgoibarko Herriko Antzokiko giltza izango du garraioak bermatzeko. Hala, instalazioa era egokian erabiltzeaz arduratuko da, bertara sartu behar duenean.

.- Afixak, kartelak eta trailerra arestiko paragrafoan adierazitako toki-egunetan utziko dira, filma eskaini baino 10 egun lehenago gutxienez.

.- Uste izango da entrega egin dela, materiala utzi beharreko lekuan utzi, eta materiala aztertu ondoren, onartutako baldintza tekniko eta administratiboekin bat baldin badator.

.- Enpresa esleipendunak etengabe telefono bidezko harremana izan beharko du Elgoibarko Udaleko Kultura Sailarekin, filmen egoerari eta baldintzei buruzko informazioa emateko; eta horretarako, arduradun bat izendatu beharko du.

en el suministro de películas al Herriko Antzokia de Elgoibar en las siguientes condiciones:

.- La empresa adjudicataria deberá disponer de las copias de las películas de cine en formato digital, debidamente legalizadas respecto a los derechos de exhibición (documento que estará a disposición de cualquier inspección ministerial en todas las proyecciones) y propiedad intelectual, industrial, patentes, marcas, etc.

.- Excepcionalmente, si por razones técnicas no fuese posible la proyección en digital, y siempre que la distribuidora así lo permita, se podrá presentar en DVD o Blue-ray, o cualquier otro formato, actual o futuro, que se adecue a los elementos de exhibición de la sala.

.- La empresa adjudicataria se comprometerá por contrato a la provisión de películas de estreno en el plazo más breve posible, y en ningún caso se rebasará el plazo de un mes desde el estreno.

.- La programación deberá realizarse como mínimo 21 días antes de su emisión.

.- La empresa adjudicataria queda obligada a facilitar la calificación obligatoria por edades para cada título, así como la duración de la película.

.- La entrega y recogida de las películas se realizará en el Herriko Antzokia de Elgoibar, de lunes a jueves de 10:30 a 13:30 y de 16:30 a 20.30. La empresa dispondrá de una llave del Herriko Antzokia de Elgoibar para garantizar los transportes, responsabilizándose del correcto uso de la instalación cuando tenga que acceder a la misma.

.- Los afiches, carteles y tráiler, se entregarán en el sitio y horario citado en el párrafo anterior, con una antelación mínima de 10 días con respecto a la proyección de la película.

.- Se entiende que la entrega ha sido realizada cuando, depositado el material en el centro de destino y su posterior examen, se encuentre de conformidad con las prescripciones técnicas y administrativas aprobadas.

.- La empresa adjudicataria deberá mantener relación telefónica permanente y persona responsable con el Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Elgoibar para informar sobre situación y condiciones de las películas.

.- Ondasunaren hornidura kontratatutakoaren kalitatearekin, markarekin, ezaugarriekin eta abarrekin bat ez baldin badator, Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak hornidura atzera botako du; eta enpresa esleipendunak, horren ondorioz, berriro ere egin beharko du hornidura hori Kultura Sailak beharrezkotzat jotzen duen epean; eta enpresa horrek ez du arrazoi horrengatik inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

.- Si el suministro del bien no se corresponde con lo contratado en su calidad, marca, características, etc., este será rechazado por el Departamento de Cultura de Elgoibar, y la empresa adjudicataria quedará en consecuencia obligada, a reponer dicho suministro en el plazo que el Departamento de Cultura considere imprescindible para la correcta prestación del servicio, sin que dicha empresa tenga derecho a indemnización alguna por tal motivo.

.- Filmak eman aurretik egin behar diren prestakuntza lanak, eta ondoren, filmak itzultzeko egin behar direnak Elgoibarko Herriko Antzokian zerbitzuak eskaintzen dituzten langileen kontura izango dira.

.- Los trabajos previos de preparación de las películas para su proyección y los posteriores para su devolución correrán a cargo del personal que presta sus servicios en el Herriko Antzokia de Elgoibar.

.- Era berean, leihatilan jasotzen den ehunekoren baten truk kontratatzen diren filmen kasuan, enpresa esleipendunak, unean-unean, leihatilan jasotakoaren likidazioak aurkeztu beharko dizkie banatzaileei, eta estreinatu gabeko filmak eskaintzeagatiko eskubideak kudeatu beharko ditu.

.- Asimismo, en el caso de las películas contratadas a porcentaje de taquilla, la empresa adjudicataria deberá aportar puntualmente liquidaciones de taquilla a distribuidores y gestionar derechos de exhibición en películas sin estrenar.

.- Enpresa esleipendunak, halaber, bere gain hartuko ditu filmak alokatzeagatiko gastuak, baita gastu osagarriak ere: besteak beste, kartelak (ale bat gutxienez), afixak, aseguruak, banaketa zinematografikoko biltegietan filmak jasotzea, filma emango den lekura garraiatzea (gutxienez, emanaldia baino 24 ordu lehenago), filma itzultzea eta horren ondorioz sortzen diren gainerako gastuak.

.- La empresa adjudicataria asume, así mismo, los gastos de alquiler de la película, incluidos los complementarios, como carteles (1 unidad mínimo), afiches, seguros, recogida en los almacenes de distribución cinematográfica, transporte al lugar de proyección (con al menos 24 horas de antelación a la exhibición), devolución desde el mismo y cualquier otro gasto derivado.